

Segurtasun sistemak etxeetan

Neure burbuila seguruan

Herri eta hirien modernizazioarekin batera, bizitza estiloen aldaketa etorri da. Masibotasunerantz jo dute hirigune gehienek, eta kontraesana bada ere, horrek auzokideen arteko urruntzea eragin du. Gizarte loturak ahultzen joan ahala, segurtasun faltaren sentsazioa areagotu da, eta segurtasun sistema pribatuen eskaria hazi.

ANDER EGILUZ

“EUSKAL HERRIA nahiko toki lasaia da, baina gero eta lapurreta gehiago dago”, horrela azaltzen du Securitas Directeko Joseba Goikoetxeak segurtasun sistema pribatuen eskariaren igoera. Goikoetxea multinazional suediarren Hego Euskal Herriko gerentea da eta 2006tik 2007ra hazkunde nabarmena izan zuen bere enpresak euskal lurraldeetan: EAEn %30eko igoera eta Nafarroan %39koa.

Eskarien gorakada hau, alabaina, ez dator bat etxe-lapurretek duten eragin apurrarekin. Ertzaintzaren datuen arabera, EAEn 2006tik 2007ra %3,5 jaitsi zen etxe-lapurreta kopurua. Nafarroan, ostera, igo egin zen kopuru hori, baina Foruzaingoaren hitzetan, ez dute arazo larririk. “Normala da arazo larririk ez izatea”, iritzi dio César Manzanosek, EHuko soziologia doktoreak: “Hego Euskal Herriak Espainiako Estatuan BPG altuenetarikoa dute. Eta gizarte batek zenbat eta lotura sozio-ekonomiko sendoagoak izan, orduan eta medio gehiago izango ditu gizarte-politi-

“Gizarteak duen segurtasun faltaren sentsazioa fabrikatua dago, telebistak saltzen duen errealtate distortsionatuaren ondorioz”

César Manzanos

ketan inbertitzeko, kolektibo marjinalak lagunduz, eta ondorioz, eguneroko delinkuentzia gutxituz”.

EAEn, 4.064 lapurreta kasu tramitatu zituzten 2007an, eta Nafarroan 256 baino ez. EAEnko populazioa Nafarroakoa baino lau aldiz handiagoa izanik, estatistikoki aldea ez da hain handia, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoak datu kaskarragoak izaten jarraitzen duen. Segurtasun sistemen eskariaren hazkundera ahoz aho zabaltzen diren zurrumuruen ondorio direla iritzi dio Ertzaintzak, askotan hedabideek zabalduko segurtasun ezaren irudiaren eraginez.

Duela urte batzuk, udan eta oporraldietan gertatu ohi ziren etxe-lapurreta gehienak, “jabeak ez zeudelako etxean”, Ertzaintzako espezialistaren hitzetan; “gaur egun, ostera, hau ez da hain argia, oporrak hartzeko ohiturak aldatzen ari direlako”.

Gizartearen ohitura aldaketak segurtasun enpresen zenbakietan ere antzematen dira. Orain urte batzuk dezente egiten zuen gora segurtasun sistemen eskariak udan eta Aste Santuan, baina egun, nahiz eta hazkundera ere bada-





goen, ez da hain nabaria. Joseba Goikoetxeak garai desberdinen arteko aldearen desagertzea ez dio oporraldien antolaketa berriari egozten, jendearen “uneoroko” segurtasun beharrari baizik.

“Gizarteak duen segurtasun faltaren sentzazioa fabrikatua dago” adierazi du César Manzanosek irmo: “Pertzepzio hau segurtasun enpresen interesekin dago guztiz lotuta. Gizarteak dituen segurtasun falta errealak –hipoteka, bankuko kreditua, hilabete amaierara heltzea...–, biolentzia sufritzeko duen aukera hipotetikoarengatik ordezkatzen du, telebistak saltzen duen errealitate distortsionatuaren ondorioz”.

Lapurreta guztiak ez dira berdinak. Badaude, alde batetik, delinkuente arruntak; droga lortzeko edonon sartzen direnak, aurkitzen duten edozer gauza lapurtzeko. Eta beste alde batetik, profesionalak daude; horiek taldeka egin ohi dute lan eta ondo zehaztutako zereginak dituzte. Polizia bat dator: Euskal Herriaren bigarren mota horretako adibideak urriak dira. Halere, poliziako adituak beti dabilta erne, taldeka lan egiten duten lapurretariako askok formazio militarra izan ohi dutelako. Mikel Santamaría Foruzaingoko inspektore-ordearen hitzetan, horiek badakite alarma bat zelan blokeatu, ez dute arrastorik uzten eta zailak izaten dira harrapatzen, kideak izaten dituztelako zaintza lanetan. Antolatutako banda

Kamera pribatuak eta alarmak dira lapurrei aurre egiteko segurtasun aparailu ohikoenetakoak.

horiek aurretik prestatzen dituzte lapurretak, eta badakite non eta noiz ostuko duten.

Kantitate aldetik bakarrik ez, lapurreta moduak ere ez dira beste leku batzuetan bezain bortitzak, Santamariaren iritziz: “José Luis Morenok sufritu zuen lapurreta bortitzaren modukorik ez da hemen gertatu, eta ez du ematen epe laburrera hona helduko denik biolentzia olde hori. Logikoena da banda horiek hiri handietan ezkutatzea, erosoago *lan egin* ahal izateko”.

Pre-alarma etxe inguruan

Alarma instalatzen dutenek, gaur egunean, ez dute ondasunak babestearren instalatzen, etxeakoak babestearren baizik. “Jendea konturatzen da lotan dagoenean etxera baten bat sartzen bada senideak arriskuan egon litezkeela” azaltzen du Goikoetxeak. “Lehen, etxeo kisketa zarratuta nahikoa zen, baina gaur egun lapurrek edozer gauza egiten dute etxera sartzeko, atea botatzera hel daitezke. Guk, pre-alarma sistemaren bidez, sentsoreak jartzen ditugu etxe inguruan, inor etxera hurbiltzen denean zenbait irudi hartzeko eta horrela jakiteko bezeroa arriskuan dagoen ala ez”.

Psikosi puntua antzematen zaie Goikoetxearen hitzei, hedabideek zabaltzen duten gizartearen irudi ilunaren ondorio, agian. “Egia da telebistak José Luis Morenoren albiste modukoak zabaltzen dituenen psikosia

“Gero eta gizarte hotzagoa ari gara sortzen, individualistagoa, eta jendeak segurtasun sentzazioa bilatzen du. Hor sartzen da alarma”

Joseba Goikoetxea

“Paranoia moduko zerbait zabaltzen ari da lapurretekin”

Laukizeko (Bizkaia) bizitegi-auzo batean dauka txaleta Y.C.E. abokatu gazteak; herri bereko baserrian bizi da J.A.E. teknikaria; eta Algortako (Bizkaia) pisu batetan bizi da P.E.A. masajista jubilatua.

Alarma jartzearen edo ez jartzearen zergatia?

J.A.E.: Nire etxera 2005ean sartu ziren lapurtzera. Dendena zabaldu, lurretik bota eta baliozko zenbait gauza eraman zituzten. Gu ez geunden etxean, baina sustoa ikaragarria izan zen, eta alarma jarri genuen.

Y.C.E.: Neure etxera ez dira inoiz sartu, baina familia bakarreko etxeetara sartzea, etxe normal batera sartzea baino askoz ere errazagoa da. Alarmak lapurra izutzea baino ez du helburu.

P.E.A.: Nik alarmerik ez daukat eta etxera ez zaizkit inoiz sartu. Egia da txaletean sartzea errazagoa dela, baina egia da ere paranoia moduko zerbait zabaltzen ari dela lapurretekin; eta ez da hainbestera.

Gaur egun lehen baino lapurreta gehiago daudela uste duzue?

J.A.E.: Gehiago daudenik ez nuke esango, lehen ere hor egoten ziren, baina behin sufrutura hurbilgoko kontutzat daukazu.

Y.C.E.: Ni abokatua naiz, eta epaitegiak lepo daude. Lehen baino lapurreta gehiago dauden? Ba ez dakit, baina argi dagoena da betiko ijitoak ez direla, orain Vladimir ez-dakitzer eta bere lehengusuak dira gogorren dabilzanak...

P.E.A.: Beti egon dira lapurretak, eta beti egongo dira. Atzeritarrak direla gehienak? Ba ziur aski bai, baina beharizan handiagoa dutelako izango da, eta ez beste ezergatik.

Hedabideek alarma lar pizten dutela esango zenukete?

P.E.A.: Erabat. Gauza txarrak baino ez dituzte agertzen, eta hori ahoberoen bazka ezin hobea da. Horrela sortzen dira gero psikosia... Edozergatik sortzen da psikosia gero.

J.A.E.: Telebistan agertzen dena gizartearengan eragina duela argi dago, baina ez dakit nik lehen baino biolentzia gehiagorik ez dagoen ba...

Y.C.E.: Ez da hedabideen errua, kaleko pertsona zenbaite-na baizik. Badago jendea segurtasun ezaren kontuarekin obsesioa duena, arrazoi argirik izan barik.

pizten dela, baina arazoa da horrelako gauzak gertatu egiten direla. Gero eta delinkuentzia handiagoa duen gizartea sortzen ari gara, eta horrek kezkatzen du jendea. Pisu batean bizi bazara, jo egizu sarrerako atea ostikoka gaueko hamabietan, eta ikusiko duzu nola ez den inor ateratzen laguntzera. Auzokideek gero eta gutxiago ezagutzen dute elkar; gero eta gutxiago laguntzen diote elkarri. Gero eta gizarte hotzagoa sortzen ari gara, indibidualistagoa, eta jendeak segurtasun sententzia bilatzen du. Hor sartzen da alarma”.

Baieztape muturrekoak dira Goikoetxearenak, segurtasunaren negozioan diharduen batenak. Herri arriskutsuak beraientzat negozioa izateak lehia morala dakarkien galdetuta, arazo erreal bati irtenbideak jarri baino ez dutela egiten erantzun du. César Manzanosek,

hala ere, gogor kritikatu du segurtasun enpresen jarrera: “Segurtasunaren industriak jo eta ke egiten du lan segurtasun faltaren sententzia herritarrei helarazteko. Segurtasun sistema elektronikoak, blindatutako ateak, alarmak... Zeure burbuila segurua eraikitzeke ezinbestekoak dituzun erremintak dira! Eta hau guztia saldu ahal izateko, beldur giroa eta etsai argi bat egon behar da: biolentzia darabilen lapurra. Segurtasun ezaren sententzia fabrikatu hori ez dator bat errealitatearekin, ezta poli-ziaren datuekin ere. Mundu arriskutsu hori da telebistak zabaltzen duena; azken batean, biolentzia geuk sufritu ahal izateak, eta horri oldarkorki erantzuteak asko saltzen du telebistan. Eta zeinek dauka telebistako minutuak erosteko ahalmena? Bada, izugarritzko indarra duen segurtasunaren industriak”. ■



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 · Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 · Hernani -Gipuzkoa-

☎ 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816 · info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com